



ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2017ko apirilaren 30ean egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



ZERAINGO HERRI BATZARRA	1
<u>1. Sarrera</u>	2
<u>2. Informazioa</u>.....	2
2.1 2016ko itxiera eta 2017ko aurrekontua	2
2.2 Elkarbizitzako proposamena	9
2.3 Senidetze proposamena	9
2.4 Batzordeak	11
2.4.1 Herri Bizitza	11
2.4.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	16
2.4.3 Tokiko Garapena	21



1. Sarrera

- Agintaldiko seigarren Herri Batzarra, aurtengo lehenengoa. Herri bilera hau nahi baino gehiago atzeratu zaigu. Garaiz hasi ginen aurrekontua lantzen baina bi urtez segidan ekitaldiak defizitarekin amaitzeak beste konponbide bat behar zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunarekin landu dugu irtenbidea. Udalak gastu finko handiak ditu eta sarrera aldetik, zerga bidez lortzen duguna gutxi da. Egoera ekonomikoa hobetuko da hartutako neurriekin poliki poliki, eta bitartean azken bi urteetan bezala inbertsioak egiten jarraitzeko aukera izango dugu.
- Bilera hau baliatuko dugu aurrekontuak aurkezteko (2016ko itxiera eta aurtengoa), batzordeen berri eman eta herri bezala aurrera egiteko elkarbizitza lantzeko proposamena aurkezteko.
- 2017an aurreikusitako Herri Batzarrak: apirilean, uztailan, urrian.

2. Informazioa

2.1 2016ko itxiera eta 2017ko aurrekontua

- **2016ko itxiera**

Orohar 2016ko itxieran ondorengoa ikusten dugu:

Sarreraren inguruan, sarrera finko gutxiago izan ditugu eta aldakor gehiago, 2016ko aurrekontuan espero baino diru laguntza publiko gehiago jaso ditugulako. Diru laguntza hauek gestionatzeak, gastu aldakorrek haztea eragin du.

Hobeto ulertzeko medikuaren kontsultako obra izango dugu adibide moduan. Aurrekontuan aurreikusi gabe zegoen arren, osakidetzak obra egitea behartu zigun kontsulta irekita mantenezko, aurreko kontsultak segurtasun eta irisgarritasun legeak ez zituelako betetzen. Horren ondorioz, obra egin beharra izan genuen.



Gastu finkoen alorrean, espero baino bajuagoak izan dira. Garbiketako gastua murriztu egin da langilea ETT batetik udal langile izatera pasatu delako. Hala ere, langileen atalean gastatzen dugu gehien zerainen gastu finkoetan.

Gainera, berogailu eta elektrizitate instalakuntzetan inbertsioek, gas eta elektrizitate kontsumoa jetsi du. Ekintza kulturaletan gutxiago gastatu da, hala nola, festak eta azoka ekologikoa, eta gehiago gastatu da obretan eta mantenuan.


ZERAINTZEN, S.A-ren likidazio eta disoluzioa espero baino gehiago luzatu zen eta horren ondorioz gastua ere hazi egin da eta 2017an ere eragina izango du. Horren arrazoiak, indemnizazioa hainbat zatitan banatu dela da eta 2017ko Maiatzean bukatuko da ordaintzen.

Hurrengo tauletan zehatzago ikusten dira emaitza guztiak.

2016	GASTUAK		
	AURREKONTUA	BEHIN BETIKO ITXIERA	DIFERENTZIA
MAILEGUAK	38.350,00 €	37.844,21 €	-505,79 €
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	111.570,00 €	124.057,11 €	12.487,11 €
HIRIGINTZA	8.000,00 €	11.049,36 €	3.049,36 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	11.300,00 €	11.030,18 €	-269,82 €
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	20.200,00 €	14.504,09 €	-5.695,91 €
GARBIKETA	23.500,00 €	9.842,07 €	-13.657,93 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	22.633,80 €	21.085,31 €	-1.548,49 €
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	5.650,00 €	4.421,60 €	-1.228,40 €
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.800,00 €	14.704,40 €	-95,60 €
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	14.000,00 €	14.409,37 €	409,37 €
EUSKERA	3.300,00 €	3.811,00 €	511,00 €
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK ETA AZOKA	14.700,00 €	12.878,35 €	-1.821,65 €
TURISMOA	21.500,00 €	21.624,82 €	124,82 €
ADMINISTRATZIO OROKORRA	30.101,00 €	34.144,08 €	4.043,08 €
GASTU FINKOAK	339.604,80 €	335.405,95 €	-4.198,85 €
ZERAINTZEN, S.A	45.801,80 €	56.200,00 €	10.398,20 €
GASTU FINKO OROKORRAK	385.406,60 €	391.605,95 €	6.199,35 €
LANDA GARAPENA			
DIRULAGUNTZEKO GASTUAK	40.000,00 €	71.338,60 €	31.338,60 €
BESTE DIRULAGUNTZEKO GASTUAK	0,00 €	44.563,62 €	44.563,62 €
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	40.000,00 €	115.902,22 €	75.902,22 €
DENERA	425.406,60 €	507.508,17 €	82.101,57 €




GASTUAK 2016



- MAILEGUAK
- UDALEKO LANGILEEN SOLDATA
- ZERAINZEN, S.A
- TURISMOA
- ADMINISTRAZIOA+ONGIZAT EA+HONDAKINAK...
- PROEKTUAK (DIRULAGUNTZAK)
- FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK

2016	SARRERAK		
	AURREKONTUA	BEHIN BETIKO ITXIERA	DIFERENTZIA
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	66.700,00 €	68.571,11 €	1.871,11 €
OBRAKO ZERGAK	8.000,00 €	1.674,67 €	-6.325,33 €
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	30.000,00 €	28.744,71 €	-1.255,29 €
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	249.743,00 €	249.058,38 €	-684,62 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	6.780,00 €	-20,00 €
SARRERA FINKOAK	361.243,00 €	354.828,87 €	-6.414,13 €
EUSKO JAULARITZA: BIODIBERSITATEK O DIRULAGUNTZA	44.163,60 €	17.833,24 €	-26.330,36 €
FORU ALDUNDIA : LURRALDE OREKA	20.000,00 €	23.041,39 €	3.041,39 €
GOIMEN DIRULAGUNTZA	0,00 €	31.032,28 €	31.032,28 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	64.163,60 €	71.906,91 €	7.743,31 €
ZERAINZEN, S.A MAILEGUA		25.000,00 €	25.000,00 €
DENERA	425.406,60 €	451.735,78 €	26.329,18 €

SARRERAK 2016



- SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)
- ZERAINZEN, S.A MAILEGUA
- IBILGAIUEN -ONDASUNAK
- OBRAKO ZERGAK
- TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)
- FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK



2016ko EMAITZAK DENERA

DEFIZITA 2016	-55.772,39 €
DEFIZITA 2015	-49.920,62 €

REMANENTE NEGATIBOA	-105.693,01 €
----------------------------	----------------------

- 2017ko aurrekontua

EGOERA EKONOMIKOA

Gaur egun eta Rajoy-en administrazio publikoaren finantziario legearen erreformaren ondoren, udal batek ezin du mailegu bat firmatu administrazioaren baimenik gabe eta hainbat baldintza bete behar dira. Hau ez zen gertatu Zeraingo udalak 2004. urtean eskatu zuen 425.000€-ko maileguarekin eta oraindik 2017 eta 2018an 68.000€ geratzen dira ordaintzeko ordudanik.

Orain, mailegu berri bat eskatzeko beharra ikusten dugu 2016ko eta 2017ko emaitza negatiboak ordaintzeko, 105.693.01€-ko emaitza negatiboak. Honen ondorioz, aurretik genuen prestamoa epe luzera ordaintzeko aldatu behar izan dugu. Hala ere, udalak duen zorpetze ahalmenak kantitate hori eta gehiago ere eskatzen uzten digu, ofizialki diputazioak gastu orokorren %5a eskatzen uzten digu funtzionamendu gastuetarako eta inbertsioetarako aparte eskatzen uzten digu.

Nahiz ez iruditu, funtzionamendurako gastuen eta sarreraren oreka batera iristen gabiltza. 2017an ere negatiboan bukatuko dugu baina 2018an emaitza positiboak izango ditugu, hori dena Zerain bezelako herri txiki batean egindako berantolaketa ekonomikoaren eta inbertsio gastuen adostasunaren ondorioz lortu da.

Aurtengo aurrekontuen harira:

Soldaten atalean gastuak igo dira, baina hau ZERAINZEN,S.A-tik datorren langilea udalera pasa delako da eta berez, gastuak ez dira haunditu, azaleratu egin dira.




ZERAINZ, S.A.ri dagokion diru kantitate bat ordaintzeko daukagu, Jakoba Errekondoren indemnizazioa, notario lanak, asesoria eta ZERAINZ, S.A-ren itxierarekin lotutako inpuestoan ondorioz.

Gainontzeko atalak gutxi gora behera mantendu egiten dira aurreko urtekoekin alderatuz. Hurrengo urterako proiektuen inguruan, diru laguntzak eskatu ditugun proiektuei partida bat gorde diegu. Ondorengoak dira datu zehatzak:

2017	GASTUAK	
	AURREKONTUA	%
MAILEGUAK	72.156,00 €	12,80%
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	146.077,00 €	25,91%
HIRIGINTZA	10.000,00 €	1,77%
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	17.500,00 €	3,10%
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	16.200,00 €	2,87%
GARBIKETA	0,00 €	0,00%
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	21.200,00 €	3,76%
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	6.900,00 €	1,22%
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.300,00 €	2,54%
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	12.000,00 €	2,13%
EUSKERA	6.700,00 €	1,19%
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK	10.500,00 €	1,86%
TURISMOA	29.500,00 €	5,23%
ADMINISTRATIO OROKORRA	35.300,00 €	6,26%
GASTU FINKOAK	398.333,00 €	70,66%
ZERAINZ, S.A	41.970,00 €	7,44%
GASTU FINKO OROKORRAK	440.303,00 €	78,10%
BASERRI BIDEAK	24.806,00 €	4,40%
BIDE BERDEA	26.063,00 €	4,62%
BIODIBERSITATEA	29.598,00 €	5,25%
AUZOEN INBERTSIOAK	4.000,00 €	0,71%
ETXE BIZITZA SOZIALAK : AURREPROIEKTUA	39.000,00 €	6,92%
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	123.467,00 €	21,90%
DENERA	563.770,00 €	100,00%




GASTUAK 2017



- MAILEGUAK
- UDALEKO LANGILEEN SOLDATA
- ZERAINZEN, S.A
- TURISMOA
- ADMINISTRAZIOA+ONGI ZATEA+HONDAKINAK...
- PROIEKTUAK (DIRULAGUNTZAK)
- HEZKUNTZA+KULTURA +EUSKERA+EKINTZAK

2017	SARRERAK	
	AURREKONTUA	%
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	68.750,00 €	11,42%
OBRAKO ZERGAK	5.000,00 €	0,83%
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	25.600,00 €	4,25%
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	250.543,00 €	41,61%
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	1,13%
SARRERA FINKOAK	356.693,00 €	59,25%
E.J.: KARTZELAKO BERRITZEA	2.422,00 €	0,40%
E.J.: BIODIBERSITATAEA	28.000,00 €	4,65%
FORU ALDUNDIA: BASERRI BIDEAK	17.364,00 €	2,88%
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	47.786,00 €	7,94%
MAILEGUA	197.582,00 €	32,82%
DENERA	602.061,00 €	100,00%

SARRERAK 2017




- SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)
- MAILEGUA
- IBILGAIUEN -ONDASUNAK
- OBRAKO ZERGAK
- TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)
- FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK
- MANDIO eta OSTATUKO RENTAK



2016-2017 KONPARAKETA


KONPARAKETA 2016-2017

GASTUAK



KONPARAKETA 2016-2017

SARRERAK





2.2 Elkarbizitzako proposamena

Udaletik elkarbizitza lantzeko proposamena egin dugu, udalean bi urte betetzera goazen honetan. Agintaldi hasieran egindako saiakeren ondoren, batzordeak osatu zirenean 2016 urte hasieran herriaren antolaketa lantzeko batzordea proposatu genuen. Orduan denbora eskatu zitzaigun tartean nekea zegoela eta. Denbora hori errespetatuta eta Udalaren lehen urtearen balorazioan herritar batzuk egindako eskaera kontuan hartuz, elkarbizitza landu eta hobetzeko lanketa egitea proposatzen dugu. Herri honek aurrera begira, etorkizunera begira, jarri behar du. Udalak berresten du denekin lan egiteko borondatea.

Zeraingo herritarren elkarbizitza hobetzeko lan egiteko prest daudenekin hasiko gara. Prozesu irekia da eta Udala bidean behar diren baliabideak jartzeko prest dago. **Lehen hitzordua: ekainak 6, asteartea, 19:00etan Udaletxean.**

2.3 Senidetze proposamena

Cistella Gironan, Katalunian, dagoen udalerri txiki bat da. 25,63 kilometro karratu ditu eta 293 biztanle. Figuerasetik gertu dago eta Zeraindik 650 kilometrotara. Cistellako alkatea bertako herritar baten inizatibaz gurekin harremanetan jarri da bi herrien arteko harremanak lantzeko proposamena luzatzeko. Ideia polita izan daiteke eta herriko kolektibo desberdinen nahiak eta interesak landu daitezke, gazteen ikuspegitik, tokiko garapenetik...

Udalak ondo ikusten du proposamena baina herritarren iritzia jakin nahiko luke. Gai hau lantzeko motibazioa eta borondatea dutenak jarri harremanetan udalarekin.






2.4 Batzordeak

2.4.1 Herri Bizitza

- OAKo 2016ko diru-kontuen berri


Taulan ikusten den bezela, 2016ko urtean, urtean zeharreko ekintza ezberdinetan eta festetan izan diren diru sarrera eta irteerak ikus ditzakegu:

2016ko KULTUR EKINTZEN IRTEERA ETA SARRERAK	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA	0,00 €	0,00 €	0,00 €
UDABERRIKO KULTUR ASTEA	1.431,07 €	372,00 €	-1.059,07 €
AZALEN LEHIAKETA(Urtekari eta festetako programa)	131,20 €	0,00 €	-131,20 €
SAN JUAN BEZPERA	317,87 €	0,00 €	-317,87 €
MUTILOARA JETSIERA	40,00 €	0,00 €	-40,00 €
HERRIKO FESTAK	10.405,25 €	3.688,70 €	-6.716,55 €
EUSKERAREN EGUNA	96,30 €	0,00 €	-96,30 €
GABONAK	1.135,70 €	1.573,50 €	437,80 €
BESTELAKOAK (aldizkariak, hip-hip hurri)	966,00 €	0,00 €	-966,00 €
GUZTIRA	14.523,39 €	5.634,20 €	-8.889,19 €






IRTEERAK



SARRERAK



- **2017ko urteko ekintzak**

Urte hasieratik gaur arte izan ditugunak:

- **Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Arratsaldeko 7etan elkartu gera Kultur etxean; Mahai baten gainean euskal emakume ezberdinen argazkiak jarri eta ondoren bakoitzak emakume horren informazioa jaso edo eman du denon informazioa osatuz.

Gero kultur etxean emakumea eta publizitatea gaiaren inguruan jarrita dagoen erakusketa ikusi eta Ostatura afaria egin da.



○ **Apirilean, 20.Korrika**

Korrikako antolakuntzarako batzorde bat osatu zen, lau bilera egin ditu talde honek eta lehen bilera Otsailaren 1an izan zen eta gero besteak jarraian. Batzorde honetan herriko talde ezberdinetako jendeak parte hartu du eta 5 KM erosi ditugu Zeraindarrok.

Korrikaren inguruan, Martxoaren 8an material salmeta postua jarri zen herriko plazan eta salmenta oso ona izan zen, ondoren Korrika bezperan pailazoa eta merienda izan zen plazan eta korrika egunean, korrika egin ondoren txokolate jana soziedadean.

Korrika Apirilaren 9an, goizean 9.30ak aldean pasa zen eta partehartze haundia izan genuen.





○ **Liburutegia eta pilotalekua**

lazko udazkenetik, liburutegian eta pilotalekuan material berriak ditugu eta erabilera ere irekiagoa da. Liburutegian ez da gora-beherarik izan bainan pilotalekuan jarri ziren kirol material batzuk (baloiak, pin-pon palak...) desagertu dira eta pin-pon mahaia ere puskatuta agertu da Apiril erdian.



Denon gauzak denon artean zaindu behar ditugu!

○ **Ikastaroak**

- Yoga, asteartetan 17.30etatik 18.30etara.
- Zumba, asteazkenetan, 20.00etatik 21.00etara.
- Pilates eta Euskal dantzak Mutiloarrekin batera taldeak osatzen badira hasiko dira.

Edozein momentutan apuntatu daiteke edonor, animatu!

○ **Maiatzeko kulturaldia**

Herrian partitu da egitaraua eta aurten, aste betean hitzaldi eta ekintza guztiak egin beharrean, iazko balorazioa kontutan hartuta, hitzaldiak sakabanatuagoka egingo dira, partehartzeko aukera gehiago izan dezagun.



2017ko ZERAINGO UDABERRIKO KULTURALDIA

• **Maiazak 6**, larunbata: 16:00etan. **II. SEGURA-ZERAIN MENDI LASTERKETA, SANSON PROBA.**

Segura eta Zeraingo mendi ibilbideetan baina, mendi lasterketa.

• **Maiazak 11**, osteguna: 19:00etan Kultur etxean:

Paco Elzaberritz Gabilondo. Aranzadi zientzia elkarreko zuzendaria eta EHUKo medikuntza inguruko eta forensen ikaslearen eskutik "LOS DERECHOS HUMANOS: ENTRE LA MEMORIA HISTÓRICA Y LA MEMORIA RECIENTE".

• **Maiazak 12**, ostirala: 16:30etarako aurrera **HAURREN MARRAZKI RALLYA** plazan edo frontoian.

19:00etan **VIII. PATATA TORTILA LEHIAKETA.** Ondoren: sari merienda pilotalekuan bertan. (Parte hartzeak, gutxienez 2ko eta gehienez 4ko taldeak izana eman behariko dute Olatu edo Mendi tabernetan maiatzaren 11rako. Sua eta lehengaiak antolatzen dituzte jarriko ditu).

• **Maiazak 14**, igandea: **SAN JUAN BEZPERA**

13:00etan Herriko Kultur etxeko eraberritze lanen (liburutegia, medikuaren kontsulta, itxaron-gela...) emaitzak ikustea.

14:00etan Herri bazkaria elizatarian. Mendeetako mahastiko zozak sutarako erabiltzen, herriko artzainen arume eta lumagorriko hegalei jana. Haurrentzako eta jateko ohitura ezberdina dutenentzako menu ezberdina

egongo da aukeran (Tiketak 12 eurotan salgai Olatu eta Mendi tabernetan Maiatzaren 10era arte. 12 urtetik beherako haurrek dohainik).

• **Maiazak 18**, osteguna: 19:00etan Kultur etxean:

Arantxa Urretabizkagaitz idazlearen eskutik "BIDEAN IKASIA" bere liburuaren inguruko hitzaldia.

• **Maiazak 19**, ostirala: 19:00etan Kultur etxean (arratsalde txakurrekin egoteko aukera):

Baltasar Galbardo. 2017ko Munduko txapelketa den Musher nafarren eskutik "EXPERENCIAS DE UN MUSER / MUSER BATEN ESPERIENTZIAK" hitzaldi-talerra bere txakurrekin.

• **Maiazak 23**, asteartea: 19:00etan Kultur etxean:

Jaime Aguirre Mauleon. Aranzadi zientzia elkarreko idazkari nagusia eta Ameur Garatuaren indusketa arkheologikoen zuzendaria eskutik "AMAIU AZKEN GAZTELUA NAFARROAKO KONKISTAN 1512-1522".

• **Maiazak 25**, osteguna: 19:00etan Kultur etxean:

Fernán Salazarren eskutik **GENERO INDARKERAREN** inguruko hitzaldi-talerra.

Oharrak: *Hitzaldiak ordu bete inguru iraungo dute.
*Jubilatu bazkaria udalarekin mantentzeko da aurrean.



○ **Festen egitarauko azalaren eta urtekariko azalaren lehiaketa**

Aurten II. Lehiaketa izango da eta hurrengo Herri bizitza batzordean (Maiatzaren 8an) gaia landuko degu eta deialdia egingo da.

○ **Herriko Festak**

Herriko festen lehen bilera egin da eta bertan lotu dira musika taldeak eta egitarauaren lehen zirriborroa. Kontutan hartu dena da ze egun tokatzen diren egutegian.

Festen inguruan dataren inguruan herri lanketa egiteko aukera ere herri bizitza batzordean aipatu da, baina datak gainean daudela ikusita eta lanketa txukun bat egiteko aukera ez dagoela ikusita, aurten dataren inguruko lanketa ez egitea aurreikusi da.

Hurrengo bilera, Maiatzaren 31an, asteazkena, 19:00etan Kultur etxean.

○ **Beste ekintza batzuk**

- San Juan Bezpera
- Mutiloara jetsiera

HERRI BIZITZA BATZORDEKO BILERAK IREKIAK DIRA ETA HILEAN BEHIN LEHENENGO ASTELEHENETAN IZATEN DIRA 18:15ETAN KULTUR ETXEAN.



2.4.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza

Funtzionamendua: batzordean 10 lagun dabilta normalean parte hartzen. Bilerak hilean behin lehen asteko ostegunean 18:00-19:30 arte egiten ditugu. Orain lantzen gauden proiektuak ondorengoak dira:

Proiektua: Baserri Bideak

2017an bi bide konponduko dira aurreko urtean eskatutakoarekin: Zabalegi Poligonoko bideko Lumagorriko sarrera eta Kozmendi auzoko bidea. Laiotz- Lasustegi auzoan Arregi etxerako bide berria egingo da. Aurten 3 bide konpontzeko diru laguntza eskatu dugu eta erantzunaren zain gaude.

- Aizpean Goikoetxe (2017)
- Barbarin Urruzti (2018)
- Kaskoan Mendi (2018)

Proiektua: Etxebizitzak

Beharra dagoela ziurtatzeko gazteei inkesta egin diegu, herrikoei eta eskualde mailan. Adinekoen eta beste guztien asmoak ere jasoko ditugu beste inkesta baten bidez.

Gazteen emantzipazioa bultzatu eta gazteek herrian bizitzeko aukerak sortu nahi ditugu. Bestalde adinekoak adinean gora egiten dutenean autonomiaz herrian bizi ahal izateko baldintzak sortu nahi ditugu. Gazteak eta adinekoak harremanetan jarri elkarlana eta auzolana errazteko. Ideia da hainbat apartamentu egitea alokairuan jartzeko. Aukerak egon litezke diru laguntza eta hitzarmenak egiteko.


Proiektua: Saneamendua

Errekaldeko zatia egin gabe geratu zen eta orain onartu digute: Barrenetxe, Antonene, Goienetxe, Migelene, Arane, Iñurrategi, Etxeaundi, Etxetxo eta Kapatxo.

Kotxikiren saneamendua ere egin gabe geratu zen eta onartu digute.

Proiektua: Kirol ekipamenduak

Batzordean gaia aztertu da eta frontoiko teilatua egoera oso txarrean dago. Diru laguntza eskatu dugu teilatua konpontzeko, eta ondoan kiroldegia egiteko herriko biltegiarekin batera.



Proiektua: **Goi tentsioko linea**

Plataformak garaipen bat lortu du, oraingo proiektua bertan behera geratu da eta beste bat lantzen hasiko dira berriro. Alegazio asko eta asko jaso dute eta denei erantzun ordeaz erabaki dute berriro hastea. Proiektu berriaren ezaugarriak zeintzuk diren jakiteko adi egon beharko da.




Elgea-Itxaso linea: gaur egun dagoen linea berpotentziatu nahi dute. Linea hori Arabatik dator eta Zeraindik eta inguruko herrietatik pasatzen da. Alegazioak jarri ditugu udaletik.

Proiektua: Hondakinak biltzeko sisteman hobekuntzak

Batzordeak landuta iaz Barbari eta Aizpeako auzoetan gune berriak sortu ziren auzotarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetuz. Aurten hobekuntza berriak proposatu ditugu Zeraingo emaitza orokorrak hobetzeko, oso gaizki ez gauden arren atzera geratzen ari garelako. Denon artean lortu nahi duguna da:

- Zabor gutxiago sortzea.
- Gaikako bilketako emaitzak hobetzea.
- Zabortegira doan hondakin kopurua gutxitzea.
- Guneak txukun edukitzea.



ETXEKO KONPOSTAIA ZERAINEN

- 44 konpostagailu
- 7.425 kg organiko kudeatzen dira urtean, konposta bihurtuz
- Berrerabilitako organikoa kontutan hartuta: %58 → %61



"ZABOR" GEHIEGI BILTZEN DA ZERAINEN, GERO ZABORTEGIAN BOTATZEKO


- Zerain: **140** kg/biztanleko/urteko
- Segura: **83** kg
- Zegama: **64** kg



GAIKAKO BILKETAKO INDIZEA. 2016



GAIKAKO BILKETAKO INDIZEA. 2017



TRASTE ZAHARRAK



943 16 15 55

- Ateratzeko egutegia errespetatu behar da: laugarren astearte gauean
- Ahal izanez gero Ordiziko edo Beasaingo **garbigunera eraman** behar dira. Ordutegia: 9.00-12.30 eta 15.30-18.30. Larunbatetan: 9.00-13.00
- Obratako eskonbroak, gurpilak, ateak, burnikiak,... beti garbigunera eraman behar dira.

HIRU GARBIGUNE: URRETXU, BEASAIN, ORDIZIA





2.4.3 Tokiko Garapena

Hilabete eta erdiz behin elkartzen den komisioa. Zeraingo ekonomia sektoreko 10 pertsona desberdinek hartzen dugu parte komisioan: agroturismoan, ostalaritza, sagarodtegiak, enpresak, artzaiak...

Sektorearen inguruko arazoak eta etorkizuna lantzen dira. Hilabete hauetan, Lur mugen eguneratzeko proiektuarekin bukatu da. Lehen fasean lur publikoak landu ziren eta bigarren fase honetan jabetza publikoko lurrak landu dira.

Denera 800 ha aurreikusi ziren eta 500 ha burutu dira, proiektuaren presupuestoa agortu arte. Hemendik aurrera lur mugak eguneratzeko geratzen diren jabeen dokumentazioa jasotzen jarraituko dugu eta, eskaeren arabera, hirugarren fase baterako diru laguntza eskatzea baloratuko dugu. Jabeen txostenak hemendik gutxira banatuko dira. (Kolore urdinez jabetza publikoko lurrak eta kolore arroxex jabetza pribatukoak)

